

# Ekoesferak, patrikako ekosistemak

**EKOISTEMA BATEN ERREPRODUKZIOA.** Arrautza formako kristalezko ontzietan

Lurra irudikatzen duten ekosistemak sortu eta salgai jarri dituzte

MIKEL AYERBE - DONOSTIA

**P**atrikako ekosistemak sortu dituzte, NASAk abiatutako ikerketen ondorioz. Mundu oso bat esku ahurrean sartu daitekeela era-kutsi dute. Patrikako ekosistema horiek kristalezko arrautza batzuk dira, eta barruan ura, algak edo itsas belarrok, bakterioak eta izkira gorriak dituzte. Zientziaren ikuspuntutik, mundu perfektua da, non argia-ren eraginez bizitza sortzen den. Ekoesfera bat da, ekosistema oso baten erreprodukzioa, eta lau-bost urteko bizia du, batez bestean.

Hasiera batean, NASAren aire espaziorako ikerketa baten emaitza ziren ekosistema erreprodukzio horiek, etorkizunean espazio zabalera edota beste planetetara ekosistemak bidaltzeko ahaleginaren ondorio. Beste planetetan lur hartzen duten astronautei beharrezkoak zaizkien ur, aire eta elikagaiak eskaintza zen helburu nagusia. Bestera esanda, astronautei ekoesfera erraldoietan bizirauteko aukera ematea. NASArentzat ekoesfera horiek Lurra irudikatzen dute, eta balizko mundu horretan izkirak gizakiak dira.

Baina sarritan gertatzen den bezala, eta egungo gizartean merkatuaren beharrak agintzen duenez, azkenean, ekoesfera horiek komertzializatu egin dira. Badira urte batzuk AEB Ameriketako Estatu Batuetan salgai jarri zituztela. Orain, ekoesferak egiten dituen enpresak lantegi bat zabaldu du Alemanian, eta hala, Europako merkatuan sartu da. Europan, behin eskaera eginda, bi asteroen buruan eskura daitezke ere- du handienak. Mementoz, ekosistema horien erreprodukzioak Internet bidez edo oso denda espezializatuetan lor daitezke bakarrik, 97 eta 580 euro bitarte-an. Interneten [www.ecosphere.com](http://www.ecosphere.com) helbidean egin daitezke eskariak. Ekoesferak hainbat museo eta akuarioan ere ikusi daitezke, bestalde.

## Ekoesferen garapena eta mantenua

Ekoesferetan sartzeko, euren artean joera erasotzailerik ez duen izkirak aukeratu dituzte. Izkirez gain, itsas belarrok, mikroorganismo aktiboak, gorgonia, hartzintxarrak eta iragazitako itsasoko ur dezilitro batzuk sar-



**EKOESFERA BAT.** NASA Estatu Batuetako Espazio Agentziarentzat ekoesfera hauek Lurra irudikatzen dute. ECO SPHERE

tzen dira kristalezko esferetan. Baino nola sortzen da bizia? Zer gertatzen da ondoren?

Argi energiaren bidez sortzen da bizia ekoesferaren barnean. Iziatz, baterio biologiko bat da ekoesfera bakoitzak; argiaren eta karbono dioixidoaren eraginez, itsas belarrek oxigenoa sortzen dute. Era berean, izkirek ureta-ko oxigenoa bereganatu eta alga eta bakteriez elikatzen dira. Bakteriek, aldiz, izkiren honda-kinak algentzako elikagai bila- katzen dituzte, eta, honenbes- tez, bizi ziklo oso eta buruaski bat gauzatzen da kristalezko arrautzaren barruan.

Egiazki, ekoesferek ez dute mantenu handiegirik behar. Arrautza barruko bizidunak ez hiltzeko eguzki argia ezinbesteko da, baina gutxi, gehiegizko argiak hil egin baitezake. Ilun- petan 60 ordu baino gehiago igaroz gero, ekoesferak ez du biziraungo; era berean, eguneko 12 ordu baino gehiago argitan edukiz gero ere hil egiten da, itsas belarrok etengabe hazten direlako eta mikroorganismo

guztiak akabatzen dituztelako. Bestalde, eguzki izpiak ekoesfe- ra zuzenean jotzea ere kaltegarria da. Beraz, zuzena ez den argi izpia da ekoesferak behar duena.

Kontuan izateko beste ezau- garri bat temperatura da. Tenpe- ratura egokia 15 eta 30 gradu- koa da. Izañ ere, 15 gradu baino gutxiagoko temperaturak izki- ren metabolismoa murriztu egingo luke.

Bitxikeria gisa, Euskal Herrian eta Spainian ekoesferak komertzializatzen dituen enpresak ez du ekosistemen eskaerarik onartzen urtarrila eta martxoan bitartean, hotzaren eraginez ekosistemak hil egingo bailirateke. Ekoesferak izaki bizidunak dira eta saltzaileek ideia hau azpimarratzen dute: «Ez dira jostailu bat. Ekosiste- mak hondatu edo hil egin dai- tezke, gaizki zainduz gero». Horrela, erosleak kristalezko ekoesfera bereganatzean eran- tzunkizun bat hartuko luke, «ezin baita mundu bat edonoren eskuetan utzi».

**Argi aldian** ⓘ KOLDO NUÑEZ BETELU (Geologian doktorea)



## Sumendiak eta sinkrotroia

**D**uela egun gutxi, Japonia ondoko irla baten ondoan urazpiko sumendi batek izandako erupzioak liluratu gaitu bere edertasun eta indarrarekin. Ez dira maiz hurrelakoak ikusten, nahiz eta gure planetako sumendi gehienak urazpian egon. Izañ ere, Lurraren plaka tektonikoak, Lurraren puzzlearen zatiak, alegia, banatzen diren eremuetan lurazpi-ko labak, gasak eta bero handiak ateratzen dira kanpora. Esate- rako, Atlantiko osoa zeharkatzen du Arktikotik Antartidara Dortsala izeneko mendikate luzeak. Mendizerra hori lehorrean ikusten duguna baino askoz luzeagoa da eta sumendiz osatutik dago. Horren adibide dugu Islandia, itsasoaren maila gainditu duen eremu bolkanikoa baita. Bere ondoan, duela 45 urte, Surtsey izeneko uhartea sortu zen, erupzio indartsu bat- ten ondorioz. Jarduera bolkanikoa sakonera txikiko itsasoaren hondalean abiatu eta laster, burua erakutsi zuen airepean uharte berriak. Handik hilabete gutxira lehenengo haziak hasi ziren lehorreratzen, eta, poliki-poliki, lur berria kolonizatzen. Hasierako erupzioak lau urtez iraun zuen, azkenik egun kilo- metro eta erdiko diametroa duen irla mapetan finkatuz. Ez dira, ordea, dauden irla guztiak horrela sortu, gehienek ez bai- tute jatorri bolkanikoa. Baina, egon badaude, jatorri hori du- ten zenbait irla ezagun. Hala nola, Kanariar uharteak, Sizilia edota Hawaiko artxipelagoa. Azken horretan daukagu munduko mendirik altuena, Mauna Loa hain zuzen, itsas sakonetik abiatzen baita ia hamaika kilometroko altuera hartu arte, ho- rrietako lau itsas mailaren gainetik.

Sumendiak, dena den, ez dira gure planetaren ezaugarri propioa, gure eguzki sistemako beste hainbatetan asko baitaude. Adibidez, Jupiter planeta erraldoiaren Io ilargian izugarrizko erupzio bolkanikoa ematen dira etengabe. Ilargi hori planetatik gertu dago, eta horren erakarpenak barne marruskatzet ikaragarri indartsuak eragiten ditu, Lurreko planetako itsasoetan ematen diren mareen modura, baina lehorrean, bertan ez bai- tago itsasorik. Dena den, Ioren atmosfera ez da gurearen antze- ra trinkoa, eta bertan ez dago oxigenorik. Beraz, erupzio erral- doi horietan ez da inoiz surik piztuko, eta sortzen diren kolore indartsu eta biziak arroka urtuek sortzen duten argi-feno- noetatik datoz.

Gugandik gertuago, Marten, ez da egun inolako jarduera bolkanikorik antzematen, baina han dago ezagutzen den su- mendirik handiena, Olimpo mendia, alegia. Sumendi horrek ia 25 kilometroko altuera du, eta 500 kilometroko diametroa. Nahiz eta gaur egun itzalita egon, Marten inoiz izugarrizko jarduera bolkanikoa eman dela erakusten du. Sumendien bidez planeten barnea ezagutzen saia gaitezke. Izañ ere, geologiak dituen leihoa baitira. Horiei esker, geologoek Teknonika arloko ezagutzaren parte handia batu dute urteetan zehar.

Baina sumendiak ezagutzaren leihoa izan daitezkeen bezala- xe, elektroia bera, tamainaren beste muturrean egonda, ezagu- tza areagotzeko baliagarria izan daiteke oso. Esaterako, elektroia eraztun zirkular batean azeleratuz gero, argi sinkrotroia sortzen du. Argi horren ezaugarrien artean oso izpi fin eta indartsuak sortzea dago. Ondorioz X izpiak baino askoz baliagarriagoak dira nanoegiturak aztertzeko. Zoritzarrez, nahiz eta aplikazio asko izan, teknologia hori oraindik txit garestia da, eta ezin da edoztarako erabili. Arazo horri aurre egiteko NA- NOQUANTA proiektua abiatu zen duela urtebete Europako Ba- tasunaren diru laguntzarekin. Nazioarteko proiektu horretan EHuko Pedro Etxenike eta Angel Rubioren taldeak hartzen du parte, sinkrotrooi teoriko bat garatu asmoz. Ideia simplea da: benetako sinkrotroia eraiki beharrean, birtuala eraikitzea. Horre- la, ereduen bidez, edozein gauza azter ahal izango litzateke, le- henengozi, sinkrotrooi birtuala honen bidez. Eta benetan merezi- ko balu ondoren benetazko sinkrotroian aztertuko litzateke gaia. Horrek denbora eta dirua aurreztekotako bidea emango luke. Ondorioz, euskal ikertzaile horien asmoa, gauzak ondo bado- az, sinkrotrooi birtuala etorkizunean gure unibertsitateak gizar- teari ematen dizkion zerbitzuetan sartzea da. Berriz ere, uni- bertsitateak ordainean gizarteari emango liokeen ordainketa- tako bat. Hori da, nire ustez, aurrera egin beharreko bideetako bat, unibertsitatea gizatearentzako are baliagarriago bihurtuz, gero eta zerbitzu gehiago eskainiz. Hala izan bedi.